

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

HEZKUNTZA SAILA

2236

AGINDUA, 2019ko maiatzaren 3koa, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren eta Hezkuntzako Ikuskatzaileen zerbitzuan dauden ikuskatzaileen kidegoetako karrerako funtzionarioen arteko estatu mailako 2018-2019ko lekualdatze-lehiaketako destinoen behin betiko esleipena.

Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2019ko martxoaren 8ko Ebazpenaren bidez argitara eman zen Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren eta Hezkuntzako Ikuskatzaileen zerbitzuan dauden ikuskatzaileen kidegoetako karrerako funtzionarioen arteko estatu mailako 2018-2019ko lekualdatze-lehiaketako destinoen behin-behineko esleipena.

Hezkuntzako sailburuaren 2018ko urriaren 22ko Aginduak (EHAA, 2018ko urriaren 31koa), Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren eta Hezkuntzako Ikuskatzaileen zerbitzuan dauden ikuskatzaileen kidegoetako karrerako funtzionarioen arteko estatu mailako lekualdatze-lehiaketa deitzen duenak, hamazortzigarren oinarrian xedatutakoaren arabera, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.— Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren eta Hezkuntzako Ikuskatzaileen zerbitzuan dauden ikuskatzaileen kidegoetako karrerako funtzionarioen arteko estatu mailako 2018-2019ko lekualdatze-lehiaketarako destinoen behin betiko esleipena onartzea, honako zerrenda honetan agertzen den bezala:

Eranskina, destinoa esleitu zaien Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioaren eta Hezkuntzako Ikuskatzaileen zerbitzuan dauden ikuskatzaileen kidegoetako parte-hartzaileen zerrenda.

Bigarrena.— Aipatutako eranskina Hezkuntza Saileko lurralde-ordezkaritzetako iragarki-tauletan eta www.irakasle.eus webgunean jartzeko agintzea, agindu hau EHAA-n argitaratzen den egunetik aurrera ikusgai egon dadin.

Hirugarrena.— Izendapenek ondorio ekonomiko eta administratiboak izango dituzte, 2019ko irailaren 1etik hasita; eta jatorrizko ikastegietako kargu-kentzeek, ordea, 2019ko abuztuaren 31ko ondorioak izango dituzte.

Laugarrena.— Indargabeturik geratuko dira Hezkuntza Administrazioaren eta Hezkuntzako Ikuskatzaileen zerbitzuan dauden ikuskatzaileei akats baten ondorioz esleitutako destinoak, baldin eta deialdietan parte hartzeko eskakizunak betetzen ez badituzte. Agindu honen eranskinean agertu arren eta are lanpostuez jabetu arren, ez da aurretiaz pentsatu behar deialdiaren eskakizunak betetzen direla.

Bosgarrena.— Agindu honetan esleitutako destinoei ezin izango zaie uko egin.

Seigarrena.— Aurtengo lekualdatze-lehiaketan Euskal Autonomia Erkidegoan behin betiko destinoa lortu duten beste autonomia-erkidego batzuetako funtzionarioek agiri hau aurkeztu beharko

dute: epai irmo baten bidez sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituen bategatik zigortuak izan ez direla adierazten duen ziurtagiria, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralak egin. Delitu horren barruan sexu-erasoak eta -gehiegikeriak, sexu-jazarpena, exhibizionismoa eta sexu-probokazioa, prostituzioa eta sexu-esplotazioa eta adingabeen usteltzea sartzen dira, baita gizakien salerosketa ere. Hala ere, ez dute aurkeztu beharko Hezkuntza Sailari espresuki baimena eman badiote aipatutako datua kontsultatzeko, elkarreragingarritasunaren sistema elektronikoen bitartez (bere eremu mugatua erabiliz –erabiltzaile eta pasahitza–, izapide hori bete beharko du «Adingabearen babesa» atalean).

Zazpigarrena.– Lekuz aldatzeko lehiaketa horretan parte hartutako Hezkuntza Administrazioaren eta Hezkuntzako Ikuskatzaileen zerbitzuan dauden ikuskatzaileek, alegatutako merezimenduak egiaztatzeko jatorrizko dokumentazioa aurkeztu badute, lehiatu diren Hezkuntza Saileko lurralde-ordezkaritzan berreskuratu ahal izango dute dokumentazio hori, bai bertara joanda, bai baimendutako pertsona bat hara bidalita. Horretarako, agindu honen aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko bi hilabeteko epea bukatu egon beharko da.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honen aurka, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko maiatzaren 3a.

Hezkuntzako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.